

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 344/2020 Erabakia, uztailaren 21ekoa. Onespena ematea Zurbaoko Administrazio Batzarreko kide kudeatzailea izendatzeari**

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak Arabako Foru Aldundiari jakinarazi dio hutsik dagoela kargu bat Zurbaoko Administrazio Batzarrean, aipatutako administrazio batzarreko lehenengo kideak uko egin diolako karguari. Hortaz, aldundiari eskatzen zaio kargua betetzeko izendapena egitea, ez baitago beste hautagairik.

Azaldutakoa ikusirik, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako errejidore eta kideak hautatzeko Foru Arauak 19. eta 21. artikuluetan eta Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak, arauak eman zituenak Arabako administrazio batzarretako batzorde eta kide kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta haien funtzionamenduari buruz, bigarren apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik, egokia da aipatutako administrazio batzarrean hutsik dagoen kide kudeatzaile postua betetzeko pertsona izendatzea, hurrengo hauteskundeak egin arte.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 342/2019 Foru Dekretuak sail honi ematen dio, besteak beste, administrazio batzarretako hauteskunde araubidearen jarraipena egiteko eginkizuna, eta eginkizun horren barruan sartu behar da kargu horiek betetzeko foru aldundiak izendatzen dituen pertsonak proposatzea.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orekaren Saileko diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Carmen Álvarez Zubizarreta izendatzea Zurbaoko Administrazio Batzarreko kide kudeatzaile.

Bigarrena. Martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak bigarren apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik, aipatutako kide kudeatzailea errejidore-lehendakariak horretarako beren-beregi deituko duen bilkura berezi batean jabetuko da karguaz. Erabaki hau jaso eta hurrengo zazpi egun baldiodunen barruan egingo da bilkura hori.

Bilkura egin eta hurrengo hiru egunen barruan bidaliko zaio Arabako Foru Aldundi honi bilkura horretako aktaren ziurtagiria.

Hirugarrena. Lurralde Orekaren Sailak erabaki hau ALHAOn argitara dezala.

Laugarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 21a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**